

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ireki da Punto de Vista zinema dokumentalen zortzigarren jaialdirako izena emateko epea

Lanak irailaren 30era arte aukeztu ahal izango dira

Martes, 24 de mayo de 2011

Punto de Vista Nafarroako film dokumentalen nazioarteko zortzigarre jaialdiko sail ofizialean filmak aurkezteko deialdia ireki du. Deialdiaren oinarriak eta izena emateko formularioa [jaialdiko webgunean](#) eskura daitezke. Pelikulen izenak emateko epea irailaren 30ean amaituko da.

Punto de Vista jaialdia Kultura eta Turismo Departametuak antolatzen du INAAC fundazioaren bidez.

Atal ofiziala ireki da eta 2010ko abuztuaren 1aren ondoren egin diren edozein herrialdetako film dokumentalek parte har dezakete. Aukeratzen diren filmek 2012ko otsailaren 21etik 26ra Iruñean egingo den zortzigarren jaialdian parte hartuko dute.

Aurreko urteetan bezala, jaialdiaren xedea sail ofizialean errealitatea hainbat modutara ulertzeko gai diren mundu osoko lanak biltzea da, ikuspuntu berritzaile, independente eta sozialki konprometituak dituztenak.

Jaialdia "izaera berritzaile eta ausarta duen proposamena da eta bertan parte hartzen duten zinemagileek bide berriak bilatzearen aldeko apustua egiten dute, betiere, konpromiso etiko eta formal argia izanik". **Sail ofizialeko sariak**

Honako sari hauek iragarri dituzte:

Sari ofizialak: Punto de Vista Sari Nagusia pelikularik onenarentzat (10.000 euro), Jean Vigo Saria zuzendaritza onenarentzat (5.500 euro) eta saria film labur onenarentzat (3.500 euro).

Sari Bereziak: Kategoria horretan, Ikusleen Sari Berezia film onenarentzat (2.500 euro) eta Aipamen Bereziak (epaimahaiak bi film saritu ahal izango



Zazpigarren jaialdiko kartelaren irudia

ditu, eta bakoitzak 1.250na euro jasoko ditu) banatuko dira.

2011eko Punto de Vista Sariak jaso dituzten filmen emanaldia Nafarroako Fimlotekan

Ostegunean, maiatzaren 26an, Nafarroako Fimlotekan hasiera emango zaio Punto de Vista 2011ko palmares-zikloari; han, bost saiotan, joan den otsailean Iruñean egin zen zazpigarren jaialdian saritu zituzten filmen emanaldia eskainiko dute. 20:00etan, *Foreign Parts* filma izango da ikusgai, Punto de Vista 2011ko pelikula onenaren Sari Nagusiaren irabazlea. Sarrera 3 € izango da (2 € fimlotekaren abonamendua erabiliz gero).

Mundu osoko hemezortzi film lehiatu ziren Punto de Vista 2011ko Atal Ofizialean. Errealitatea ulertzeko hainbat modu erakutsi zituzten eta jaialdiko sariak lortzeko aukera izan zuten. Ziklo horretan, sari ofizialak lortu zituzten sei pelikula aurkeztuko dira, baita, *Notas de lo efímero* film laburra ere, X Films 2010 Proiektuko irabazlea eta 2011ko Punto de Vista jaialdiaren amaierako ekitaldian estreinatu zena.

Sail Ofizialean saritutako filmak herrialde hauetakoak dira: Estatu Batuak (*Foreign Parts*, Punto de Vista Sari Nagusia, eta *Translating Edwin Honig: A Poet's Alzheimer*, film labur onenaren saria), Erresuma Batua (*The Arbor*, Jean Vigo Saria zuzendaritza onenarentzat), Espainia (*Color perro que huye*, ikusleen saria), Portugal (*48*, aipamen berezia) eta Belgika (*ICI-Bas*, aipamen berezia).

Foreign parts

J.P. Sniadecki eta Véréna Paravel dira *Foreign Parts* filmaren zuzendariak. Filmak Willets Point auzoa deskribatzen du, New York Mets taldearen estadioaren atzean gordeta eta eraistear dagoen gun e industrial hain zuzen ere. Ez dute burutu inolako hiri-antolamendurik, ez dago espaloirik, zoladurarik, ezta estolderia-sistematik ere eta badirudi etorkizunean egingo den hiri-garapenerako prest dagoela. Filmak bizitzaz beteriko lekua deskribatzen du, deseginda dagoenaren artean bizi den eta gizarteari dagoeneko interesatzen ez zaion guztia berreskuratzen eta berrerrabiltzen duen komunitatea alegia. Autoak marken eta osagaien arabera zatitzen eta katalogatzen dituzte eta, ondoren, berriro saltzen dizkiete Willets Pointera eguraldirik txarrean ere joateari uzten ez dioten makina bat bezerori.

"Baina merkataritza baino erakargarriagoak dira han bizi diren pertsonaiak. Joek, auzoan hazitako bakarrak, ezintasunez eta amorruez beteriko kaleetan zehar ibiltzen da, galdutako Lear Erregea bailitzan, eta saihestu ezinena saihesten ahalegintzen da: lekua berehala utzi beharra. Sara eta Luis bikotea abandonatutako furgoneta batean bizi dira negu gogorrean, eta jateko diru pixka bat lortzen saiatzen dira. Juliak, txatartegiko erreginak, jarrera positiboa agertzen du ahaztutako talde horretan... *Foreign Parts* filmak, auzo baten borroka aztertu eta erakusten du, New Yorkeko hiriguneko kapitalizazio geldiezinaren aurrean bizirauteko borroka